

Bideoaren erreferentzia: A2B01 Istripua

Maila: A2

Helburuak: Lagunartean, besteak jakinaren gainean jartzeko helburuz, esaldi sinpleak erabiliz, gertatu edo ikusitako zerbaiten kontakizun laburra egitea.

Funtzioak: Informazioa eman eguneroko kontuez.

Azken ekintza: Informazioa emateko gertaera sinpleak kontatzea.

Adierazpide linguistikoak:

- Aditz jokatuak: orainaldi burutua. Deklinabidea: noiz, non. Lexikoa: eremu semantikoa, istripuak.

1- IKUSI AURRETIK

1.1 Burua beste nonbait

Girotzeko esaldi batzuk markatu beharko dituzte bi galderen inguruan: Istripu baten aurrean zer egiten du jendeak normalean? / Zuk istripu larririk ikusi duzu? .

Bikoteka komentatu ditzatela gero erantzunak.

2- IKUSI BITARTEAN

2.1 Non du burua Josuk?

Testua ulertu duten ikusteko, eskaintzen zaizkien bi galderen erantzun zuzena markatu beharko dute. (bideoaren lehen zatia).

Ariketaren zuzenketa:

- Zertaz ari da Amaia? (Jende aurrean hitz egiteaz).
- Non du burua Josuk? (Kezkatuta dago: buruhausteren bat du).

2.2 Zer gertatu da ba?

Lehen zutabeko esaldiak bigarreanean du segida. Testua ulertu duten ikusteko, lotu ditzatela esaldiak, bideoaren bigarren zatia ikusi bitartean. Aurretik irakur ditzatela esaldiak.

Ariketaren zuzenketa:

- Gaur goizean istripu bat > ikusi dut etxe parean
- Autobus batek moto bat jo du > eta motozalea autobusaren azpian geratu da
- Oihu egin dugu > eta esnatu egin da azkenean
- Motozaleak ez zuen hitzik egiten > eta beldurtu egin naiz
- Mina zuen > eta negar egiten hasi da
- Han egon naiz > ordu erdian, animatzen

2.3 Zergatik dago kezkatuta Josu?

Ulermen-galdera bati erantzungo diote ikasleek.

Erantzuna: Ez du nahi Amaiak moto-istripua izatea

Adostu ditzatela 2.1, 2.2 eta 2.3. ariketen erantzunak lagun batekin. Hori egiterakoan hobe berriz bideoa ikustea, eta azpigituluekin, nahi badute.

3- IKUSI ONDOREN

3.1 Hizkuntzan arreta

Lehen gertatu dena gero kontatzen; egun berean gertatu dena gero kontatzeko orainaldi burutua erabili behar da. Ohartarazi ezezkoetan aditz nagusia eta aditz laguntzailearen ordena aldatu egiten dela. Ideia edo esaldi-mota hau *Ikusi bitartean* fasean maiz aterata da.



Transkripzioan *Hizkuntzan arreta* ataleko esaldien eskema duten esaldi edo ideiak azpimarratuko dituzte.

Erantzuna:

Amaia. Hil egin da?

Josu.- Ez, ez, ez, ez... Eskerrak! Oihuka hasi gara eta esnatu egin da azkenean.

Amaia.- Gizajoa!

Josu.- Minez zegoen eta negarrez hasi da; baina ezin izan dugu atera autobusaren azpitik garabia etorri arte. Eta han egon naiz berarekin, ordu-erdian, animatzen.

Amaia.- Eta horregatik iritsi zara berandu fakultatera.

Josu. Bai.

Amaia.- Eta kolpe handia hartu al du?

Josu.- Ba bai, handia.



3.2 Baina zer gertatu da?

Landu ditugun ideia edo esaldi horiez osatutako kontaketa bat eman ikasleari.

Begira, Lurdes, gaur goizean autobusa hartu dut euskaltegira etortzeko. Autobusa atera da geltokitik, eta beti bezala, San Andres kalean sartu da. Baina kale horretan arazo bat izan dugu: autobusak bigarren ilaran zegoen auto batekin egin du topo. Ezin izan dugu aurrera egin 15 minutuz. Oso urduri jarri gara guztiak. Azkenean autoaren jabea etorri da, eta izugarritzko istilua izan da autobuszale eta kotxearen jabearen artean. Ia-ia borrokan hasi dira biak. Horregatik heldu naiz gaur berandu euskaltegira.



Aztertu dezatela egoera, galdera hauei erantzunez. Ondoren, osatu dezatela taula binaka:

Erantzuna:

	Josuren kontakizuna	Ikaslearen kontakizuna
Zer gertatu da?	Josuk istripu bat ikusi du Josuk motozaleari lagundu dio Josu berandu heldu da unibertsitatera	Auto batek traba egin dio autobusari Ia borrokan hasi dira bi txoferrak Ikaslea berandu heldu da euskaltegira
Noiz?	Gaur goizean	Gaur goizean
Non?	Etxe aurrean	San Andres kalean
Nor da protagonista?	Josu, motozalea, autobuszalea.	Autoko eta autobuseko gidariak



Gaur norbait berandu etorri da euskaltegira?

- Berandu etorri den ikaslea: Konta dezala zer gertatu den edo zaion. Baina kontaketa ez gezurren bat sartuta.
- Taldea: bitartean besteek entzun eta binaka erabaki zein den gezurrezko datu hori.

TRANSKRIPZIOA

(02:40)

AMAIA.— ... beraz, jendearen aurrean hitz egiteko teknikak landu behar ditugu lan berri honetan, gure esperientzian oinarrituta. Josu, zuk hitz egin duzu sekula jende aurrean?

JOSU.— ...

AMAIA.— Nik bai, askotan. Txikitan, ikastolako antzerki-eskolan ibili nintzen. Eskolan, irakasle batek esaten zigun beste ikasleei aurkeztu behar genizkiela gaiak. Eta fakultatean hainbat hitzalditan parte hartu nuen... Josu... Josu!

JOSU.— Bai... Barkatu, zer esan duzu?

AMAIA.— Baina non zaude, motel! Zer gertatu zaizu?

JOSU.— Niri ezer ez. Lasai egon niregatik.

AMAIA.— Baina ez duzu entzuten, burua ez daukazu hemen.

JOSU.— Ba ez. Egia da.

ETENA

JOSU.— Kontua da gaur goizean, istripu bat ikusi dudala etxe aurrean. Ez zara jabetu?

AMAIA.— Ez, ni zu baino lehenago atera naiz, eta ez dut ezer ikusi. Zer gertatu da, ba?

JOSU.— Gure etxe aurrean, atariaren parean, autobus batek moto bat jo du eta motozalea autobusaren azpian geratu da. Eta laguntzera joan naiz.

AMAIA.— Buffff, eta?

JOSU.— Ba hasieran mutilak ez zuen ezer esaten, eta beldurtu egin gara.

AMAIA.— Hil egin da?

JOSU.— Ez, ez, ez, ez... Eskerrak! Oihuka hasi gara eta esnatu egin da azkenean.

AMAIA.— Gizajoa!

JOSU.— Bai, minez zegoen, eta negarrez hasi da; baina ezin izan dugu autobusaren azpitik atera garabia etorri arte. Eta han egon naiz berarekin, ordu erdian, animatzen.

AMAIA.— Eta horregatik iritsi zara berandu fakultatera.

JOSU.— Bai.

AMAIA.— Eta? Kolpe handia hartu al du?

JOSU.— Ba bai, handia. Hasieran ezin zituen hankak mugitu. Baina gero, lasaitu denean, probatxo batzuk egin eta ondo zegoen. Kolpe latza zeukan, baina hautsita, ezer ez.

AMAIA.— Eta orduan, zergatik zaude hain...?

JOSU.— Ez dakit. Burutik pasatu zait motokoa, agian, zu zinela, eta oso urduri jarri naiz.

AMAIA.— Mila esker, Josu, maitagarria zara, gero!

JOSU.— Amaia, kontuz ibili motoan. Ez dut nahi zuri ezer txarrik pasatzea.

AMAIA.— Lasai, ez zait ezer gertatuko, poliki ibiliko naiz.